g) Elaborar y actualizar periódicamente el inventario del menaje y su reposición.

h) Presentar al Ó.M.R. informe sobre las características y calidad del servicio de la empresa contratada y proponer las obras y mejoras de instalaciones.

i) Controlar la higiene de los alimentos y de los locales.

j) Cualquier otra función necesaria para el correcto desarrollo del servicio, así como las que se le encomiende por la normativa vigente.

2.– Estas funciones podrán delegarse al personal docente del propio centro que voluntariamente quisiera asumirlas, preferentemente entre quienes no completaran horario lectivo.

3.– El ejercicio de las funciones de gestión y administración del comedor conllevará para quien efectivamente las ejerza una reducción horaria conforme al baremo que oportunamente se establezca, en el marco negociador del colectivo docente. Cuando se trate de docentes que inicialmente no tienen completado su horario lectivo, la reducción exigirá la adecuación correspondiente.

4.– Con independencia de lo previsto en los epígrafes anteriores de este artículo, la administración educativa ofertará a los centros -mediante convocatoria de la Dirección de Gestión de Personal y en los términos previstos en la misma- la posibilidad de que las funciones enunciadas se desarrollen por personal que resultare recolocado en aplicación de las medidas contempladas en el art. 12, puntos 7 y 8, del Decreto 197/1998, de 28 julio, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En este supuesto, además de las funciones descritas en el epígrafe 1, el docente responsable de la gestión del comedor desarrollará las funciones de vigilancia, contando como un monitor de comedor más a efectos de ratio.

*16. artikulua.*– 1.– Jantokiko Batzordea eratuko da, eta honako kideek osatuko dute:

a) Ikastetxeko zuzendaria. Batzordeko lehendakaria izango da. Jantoki partitua bada, jantokia partitzen duten ikastetxeetako zuzendariak izango dira lehendakari.

b) Jantokiko kudeaketa eta administrazioaren ardura duen irakaslea.

c) Hainbat ikasle (DBHko lehenengo ziklotik gorakoak) eta jantokia erabiltzen duten ikasleen hainbat guraso. Ikasle eta guraso kopurua ikastetxeko OOGak erabakiko du.

Jantokiko Batzordea ez bada eratu, OOGko batzorde iraunkorrak hartuko ditu beregain Jantokiko Batzordearen zereginak, eta OOGrik egon ezik, ikastetxeko zuzendaritza taldeak hartuko ditu.

2.– Jantokiko Batzordearen zereginak honakoak dira:

a) Jantokiko aurrekontua egitea.

b) Ordezkaritza Organo Gorenari kontuak ematea.

c) Jantokiko arduradunari laguntzea jantokiko fondoak administratzen.

d) OOGari menuak proposatzea, ikasleen premia dietetikoak kontuan hartuz.

e) Ikasleen partehartzerako programak proposatzea: osasunerako hezkuntza, gizarte-azturak eskuratzea eta aisialdia.

f) Helburuen betetze-mailaren jarraipena egitea.

g) Jantoki-zerbitzua ebaluatu eta OOGari hobekuntzak proposatzea.

h) Batzarretako aktak egitea.

i) Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den beste edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion bestelako funtzioak ere.

II. AZPIATALA
SUKALDEKO LANGILEAK, JANTOKIKO BEGIRALEAK ETA HEZKUNTZA BEREZIKO LAGUNTZAILEAK

*17. artikulua.*– Sukaldeko langileak arduratuko dira janaria behar bezala prestatzeaz.

Sukaldeko langileen zereginak izango honakoak dira:

1.– Janariak prestatzea.

2.– Janaria behar bezala aurkeztea eta jantokira eramatea.

3.– Sukaldea eta bertako tresnak garbitzea.

4.– Jantokia garbitzea eta jantokiko instalazioak prest izatea.

*Artículo 16.*– 1.– Se constituirá la comisión del comedor, que estará formada por los siguientes miembros:

a) El Director del centro, que será quien la presida. En el caso de comedor compartido, por los directores de los centros que lo componen.

b) El docente que tiene asignadas las funciones de gestión y administración del comedor.

c) Un número de alumnos/as (a partir del primer ciclo de la E.S.O.) y de padres/madres de alumnos que utilicen el comedor y que acuerde el/los Ó.M.R./s.

En el caso que no se haya constituido la Comisión del Comedor, sus funciones las realizará la Comisión Permanente del Ó.M.R. y, en su defecto, el equipo directivo del centro.

2.– Corresponden a la Comisión de Comedor las siguientes funciones:

a) Elaborar el presupuesto del comedor.

b) Rendir cuentas ante el Órgano Máximo de Representación.

c) Colaborar con el responsable del comedor en la administración de los fondos del comedor.

d) Proponer al Ó.M.R. los menús de acuerdo con las necesidades dietéticas de los alumnos.

e) Proponer programas de participación del alumnado: educación para la salud, adquisición de hábitos sociales y tiempo libre.

f) Seguimiento del cumplimiento de objetivos.

g) Evaluar el servicio de comedor y plantear mejoras al Ó.M.R.

h) Levantar acta de sus reuniones.

i) Cualquier otra función necesaria para el correcto desarrollo del servicio, así como las que se le encomienden por la normativa vigente.

SUBSECCIÓN II
PERSONAL DE COCINA, MONITORES DE COMEDOR Y AUXILIARES DE EDUCACIÓN ESPECIAL

*Artículo 17.*– El personal de cocina será el encargado de la elaboración y puesta a punto de los alimentos.

Corresponden al personal de cocina las siguientes funciones:

1.– Preparación de los alimentos.

2.– Correcta presentación de la comida, llevándola hasta el comedor.

3.– Limpieza de la cocina y de los utensilios de la misma.

4.– Limpieza y puesta a punto de las instalaciones del comedor.

5.– Jantokiko funtzionamenduari eragiten dioten gorabeheren berri ematea jantokiko arduradunari, besteak beste lehengaien erosketen eta tresnen mantenimenduen gainean.

6.– Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dituen bestelako funtzioak ere.

Janaria egiten ez duten jantokietan eta sukaldeko langile kopurua ratioak ezarritakoa baino handiagoa izanik, janaria jantokian bertan egiten duten jantokietan, sukaldeko langileek janaria jantokiko mahaietara eraman eta bertatik jasoko dute. Zeregin hori jantokiko begiraleekin koordinatuta egingo dute.

Janaria arloko enpresa homologatu batek egiten badu, kontratatutako enpresa horretako langileek egin beharko dituzte goian esandako zereginak, eta enpresak bera arduratuko da zeregin horiek ondo betetzen direla egiaztatzeaz.

*18. artikulua.*– Jantokiko begiraleen zereginak honakoak dira:

1.– Jantokian ordena zaintzeaz arduratzea.

2.– Ikasleen ardura eta zaintza, ikasleak jantokian daudenean, bai eta jantokian sartu aurreko eta bazkal osteko atsedenaldietan daudenean ere.

3.– Janaria mahaian ipintzea eta mahaitik jasotzea.

4.– Jantokiak hezkuntza-izaera duenez, ikasleen partehartzea ere sustatuko da, eta honela egingo da: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko lehen urtetik gorakoei mahaia ipintzen eta jasotzen erakutsiko zaie eta DBHko lehen urtetik gorakoei mahaiak zerbitzatzen eta txikiei laguntzen erakutsiko zaie.

5.– Ikasleen partehartzerako programak garatu: osasunerako hezkuntza, gizarte-azturak eskuratzea eta aisialdia.

6.– Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkien bestelako funtzioak ere.

*19. artikulua.*– Heziketa Bereziko laguntzaileen zereginak honakoak dira:

1.– Premia bereziak dituzten ikasleen ardura eta zaintza, jantokian dauden bitartean.

2.– Premia bereziak dituzten ikasleen ardura eta zaintza jantokiko aisialdietan.

3.– Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkien bestelako funtzioak ere.

5.– Informar al responsable del comedor de cuantas otras cuestiones afecten al correcto funcionamiento del comedor, entre otras las relacionadas con el suministro de materias primas y mantenimiento de utillaje.

6.– Cualquier otra función necesaria para el correcto desarrollo del servicio, teniendo en cuenta la normativa laboral vigente.

En los comedores donde no se elabora la comida, y en aquellos donde se elabora con una dotación de personal de cocina por encima de las ratios establecidos, el personal de cocina realizará la función de servir la comida a las mesas y retirarla de las mismas. Esta función la realizará en coordinación con los monitores.

En el caso de que la elaboración se realice por empresas homologadas del sector, las anteriores funciones serán prestadas por el personal de la empresa contratada, debiendo controlar ésta su estricto cumplimiento.

*Artículo 18.*– Las funciones de los monitores de comedor son las siguientes:

1.– Velar por el mantenimiento del orden en el comedor.

2.– Atención, vigilancia y cuidado del alumnado en el comedor, y en los períodos de descanso, tanto antes como después de la comida.

3.– Servir la comida a las mesas y retirarla de las mismas.

4.– En razón del carácter educativo del comedor escolar, se fomentará la colaboración de los alumnos, a partir del primer año del tercer ciclo de Educación Primaria en las labores de puesta y recogida del servicio de mesas, y a partir del primer año de la E.S.O. en el servicio de las mesas y en la atención a los más pequeños.

5.– Desarrollar los programas de participación del alumnado: educación para la salud, adquisición de hábitos sociales y tiempo libre.

6.– Cualquier otra función necesaria para el correcto desarrollo del servicio, así como las que se le encomienden por la normativa vigente.

*Artículo 19.*– Corresponden a los Auxiliares de Educación Especial las siguientes funciones:

1.– Vigilancia, cuidado y atención en el comedor escolar de los alumnos con necesidades educativas especiales.

2.– Atención, vigilancia y cuidado de los alumnos con necesidades educativas especiales en los tiempos de recreo del comedor.

3.– Cualquier otra función necesaria para el correcto desarrollo del servicio, así como las que se le encomienden por la normativa vigente.

III. AZPIATALA
ERANTZUKIZUNA

*20. artikulua.–* Jantokiko zereginak eta lanak egiten dituzten langileen erantzukizuna, langileek dituzten zeregin eta lanek mugatuko dute.

IV. AZPIATALA
SEGURTASUNA ETA HIGIENEA

*21. artikulua.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Osasun Sailak ezartzen duena alde batera utzita, jantokien osasun egoera kontrolatuko, toki erakundeek arlo honetan dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

Era berean, ikasturtean zehar jantokiaren edukiera eta tresnen egoerari buruzko azterketa bat egingo da. Horrez gain, horiek hobetzeko proposamenak egingo dira.

Horretarako, ikasturte bakoitzaren hasieran, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jantoki baimenduen zerrenda igorri ahal izango dio Osasun Sailari.

Bestalde, jantoki baimenduek Osasun Ikuskaritzaren bisita-liburua izango dute bertan.

V. AZPIATALA
FINANTZAZIOA

*22. artikulua.–* 1.– Jantokiak jankideen kuotekin finantzatuko dira, eta hala badagokio, bestelako erakunde pribatu edo publikoren batek jantokirako emandako laguntzekin ere bai.

2.– Era berean, eta kuotek eta laguntzek ez badituzte jantoki-zerbitzuaren benetako kostuak estaltzen, Hezkuntza Sailak behar duten dotazioa esleituko die ikastetxeei, hala baitago jasota Euskal eskola Publikoaren Legearen 54.2 artikuluan, lege beraren 56.1, 31.2b) eta 36.2b) artikuluen haritik.

3.– Jankideren batek ez badu kuotarik ordaintzen, jantokiko plaza galduko du. Jantokiko plaza kentzea OOGak erabaki beharko du.

VI. AZPIATALA
KONTROLA

*23. artikulua.–* 1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskola-jantokien funtzionamendu administratiboa eta ekonomikoa gainbegiratuko du, eta horretarako arlo bakoitzean eskumena duen organoaz baliatuko da. Organoak honakoak izango dira: Langileria, Ekipamendua, Aukera Berdintasuna eta Aurrekontuak. Horiez gain, Zerbitzuen Ikuskaritza Orokorra ere

SUBSECCIÓN III
RESPONSABILIDAD

*Artículo 20.–* La responsabilidad del personal que realiza funciones y labores de comedor vendrá delimitada en virtud de sus propias funciones.

SUBSECCIÓN IV
SEGURIDAD E HIGIENE

*Artículo 21.–* El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, independientemente de lo que dictamine el Departamento de Sanidad, controlará el estado sanitario de los comedores escolares, sin perjuicio de las competencias de las entidades locales en esta materia.

Asimismo, a lo largo del curso escolar se realizará un análisis de la capacidad y del estado tanto de las instalaciones como de los útiles del comedor, y se efectuarán propuestas de mejora y adecuación de los mismos.

A tal efecto, al inicio de cada curso escolar, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá facilitar al de Sanidad la relación de comedores autorizados.

Para este fin, todos los comedores autorizados contarán con el correspondiente libro de visitas de Inspección Sanitaria.

SUBSECCIÓN V
FINANCIACIÓN

*Artículo 22.–* 1.– Los comedores se financiarán con las cuotas de los comensales y, en su caso, con las aportaciones de otros entes públicos o privados destinadas a tal fin.

2.– Asimismo, y en el supuesto de que dichas cuotas y aportaciones no cubran el coste real del servicio de comedor, el Departamento asignará a los centros las dotaciones necesarias, de conformidad con lo establecido en el artículo 54.2 de la Ley de Escuela Pública Vasca, en relación con los artículos 56.1, 31.2.b y 36.2.b de dicha Ley.

3.– El impago de las cuotas por parte de los comensales será causa de pérdida de la plaza de comedor. La privación de la plaza será decidida por el Ó.M.R.

SUBSECCIÓN VI
CONTROL

*Artículo 23.–* 1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación supervisará el funcionamiento administrativo y económico de los comedores escolares a través de los órganos Competentes en cada materia, es decir, Personal, Equipamiento, Igualdad de Oportunidades y Presupuestos. Además de ello, la Inspección General de Servicios llevará a cabo sus propias

berari dagokion zereginez arduratuko da, jantokiko zerbitzuaren eta kontuen auditoria barne.

2.– Jantokien baimenei, aldaketei eta baimenen baliogabetzeei buruzko jarduerak Sailak berak egingo ditu, Baliabide Zuzendaritzaren bitartez.

3.– Aurrekontuak eta Ekonomi Kontroleko Zerbitzuak eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzuak ezarriko dituzte jantokien kudeaketa administratibo eta ekonomikorako beharrezkoak diren jarraibide guztiak.

Aurrekontu eta Hezkuntza Administrazioko Lurralde Burutzak egingo du jantokien kudeaketa administratibo eta ekonomikoaren jarraipena, eta horretarako behar duen informazioa jasoko du jantokietatik.

4.– Ikastetxeek bankuko kontu baimendu bat eduki ahal izango dute jantoki-zerbitzua kudeatzeko. Kontu hori funtzionamenduko gastu orokorretako kontu baimendutik aparte egon ahalko da, eta kontuaren kudeaketa ikastetxeko kudeaketa orokorrean sartu ahal izango da, eta bat etorri beharko da aldez aurretik onartu izan den urteko kudeaketa programarekin.

## III. KAPITULUA
## BAIMENDUTAKO ENTITATEEN JANTOKIAK

### I. ATALA
### BAIMEN ERREGIMENA

*24. artikulua.*– Baimendutako entitateek kudeatutako jantokiak onartzeko prozedura eta baldintzak honakoak dira:

a) OOGak jantokia onartzeko eskabidea, bertako lehendakariak sinatua, bidaliko du dagokion Lurralde Ordezkaritzako Aukera Berdintasuneko Zerbitzura.

Eskabidearekin batera honako agiriak bidali beharko dira:

1.– OOGak hartutako erabakia. Erabakian adierazi beharko da baimendutako entitate batek kudeatutako jantoki-zerbitzua beharrezkoa dela.

2.– Jantoki erabilpena izango duen lokala aldi batez eta dohainik erabiltzeko baimenaren ziurtagiria; ziurtagiria ikastetxeko zuzendariak luzatuko du jantokiaren kudeaketa beregain hartuko duen zuzenbide pribatuko entitate baimenduaren alde.

3.– Proiektatu den jantokiaren ezaugarri nagusien memoria deskribatzailea; jantokia kudeatuko duen baimendutako entitate pribatuak izenpetuko du memoria, eta bertan honakoak jaso beharko dira:

– Jantokiaren gehienezko plaza kopurua: jankide kopurua eta jateko txanda kopurua zehaztu beharko dira.

– Jantokia finantzatzeko aurreikusi den sistema eta sarrera eta gastuen aurrekontuaren kalkulua.

– Jantokiaren kudeaketa beregain hartuko duen zuzenbide pribatuko entitatearen nortasun juridikoaren

funciones, incluidas la auditoría del servicio y cuentas del comedor.

2.– Las actuaciones respecto a las autorizaciones, modificaciones y revocaciones las realizará el propio Departamento a través de la Dirección de Recursos.

3.– Los Servicios de Presupuestos y Control Económico, e Igualdad de Oportunidades dictarán cuantas instrucciones consideren necesarias para la gestión económica y administrativa de los comedores.

La Jefatura Territorial de Presupuestos y Administración Educativa, hará el seguimiento administrativo y económico de los comedores y recabará de los mismos cuanta información sea precisa para ello.

4.– Los centros podrán disponer de una cuenta bancaria, autorizada para gestionar el servicio de comedor, que podrá ser independiente de la cuenta autorizada de gastos generales de funcionamiento, y cuya gestión se integrará en la gestión económica global del centro, de acuerdo con el programa anual de gestión previamente aprobado.

## CAPÍTULO III
## COMEDORES DE ENTES AUTORIZADOS

### SECCIÓN I
### RÉGIMEN DE AUTORIZACIÓN

*Artículo 24.*– Procedimiento y requisitos para la autorización de comedores gestionados por entes autorizados:

a) El Ó.M.R. remitirá, al Servicio de Igualdad de Oportunidades de la Delegación Territorial correspondiente, la solicitud de autorización del comedor debidamente firmada por el Presidente de dicho órgano.

A la citada solicitud se acompañarán los siguientes documentos:

1.– Acuerdo del Ó.M.R. en el que se haga constar necesariamente la opción expresa por el servicio de comedor gestionado por entidad autorizada.

2.– Documento acreditativo de la autorización temporal y gratuita de uso de los locales destinados al comedor, realizada por el Director del centro a favor de la entidad autorizada de derecho privado que asumirá la gestión del comedor.

3.– Memoria descriptiva de las características generales del comedor proyectado, firmada por la entidad autorizada privada que gestionará el comedor, en la que se hará referencia a los siguientes extremos:

– La capacidad máxima del comedor, indicando el número de comensales y el número de turnos de comida.

– Sistema previsto para la financiación del comedor y presupuesto estimado de ingresos y gastos.

– Documento acreditativo de la personalidad jurídica de la entidad de derecho privado que asumirá la

ziurtagiria, bai eta merkataritza, zerga nahiz lan arloan indarrean dagoen legedia betetzen duela egiaztatzen duen ziurtagiria ere.

b) Lurralde Ordezkaritzako Aukera Berdintasuneko Zerbitzuak erabakiko du baimena eman ala ez, eta ematen bada, zeintzuk baldintza bete beharko diren. Ondoren, hori guztia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Baliabide Zuzendaritzara bidali beharko du a) idatz-zatian adierazitako agiriekin batera.

c) Baliabideetako zuzendariak ebatziko du baimena eman ala ukatzea, eta gerta liteke baiezko ebazpen bi ematea aldi berean:

1.– Behin-behineko baimena: jantokiek egokitze-lanak behar badituzte eta aldi berean jantoki-zerbitzuaren funtzionamendua bermatu ahal bada.

2.– Behin betiko baimena.

d) Baimena ematen duen ebazpenak eskolako jantoki-zerbitzua emateko baldintza guztien aipamena egin beharko du.

*25. artikulua.*– Baimena aldatzea.

Baimena ematen duen ebazpenean jasotako edozein baldintza aldatu nahi bada, Baliabideetako Zuzendaritzaren oniritzia beharko da, eta dagokion Lurralde Ordezkaritzaren bidez egin beharko da aldaketa-eskabidea. Eskabidea ikasturtearen azken hiruhilekoan egin beharko da, eta horrela hurrengo ikasturtea hasi baino lehen baimendu ahal izango da. Baliabideetako Zuzendaritzak ebatziko du aldaketa-eskaera bidezkoa den ala ez.

*26. artikulua.*– Baimena baliogabetzea.

1.– Agindu honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak ez betetzeak, edo jantoki-zerbitzuan ekonomia-defizita egoteak, eskola-jantokia zabaltzeko eta berorien funtzionamenduaren gaineko baimena baliogabe dezakete.

2.– Nolanahi ere, ikastetxeko OOGak ezin baditu berma eskola-jantokia behar bezala funtzionatzeko eta antolatzeko beharrezko baldintzak, Baliabideetako zuzendariak jantoki-zerbitzua etetea erabakiko du.

3.– Baliabideetako Zuzendaritzak baimenean jasotako baldintzen jarraipena egingo du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organo eskumendunen bitartez, 23. artikuluan jasotakoari jarraiki.

II. ATALA
JANTOKI-ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

*27. artikulua.*– Baimendutako entitate pribatuetako jantokietako sukalde eta jantoki zerbitzua arlo horretako enpresek eman beharko dute.

*28. artikulua.*– 1.– Jantoki erabilerako lokalak laga zaizkion baimendutako entitateak berak egingo du zerbitzuaren kontratazioa.

gestión del comedor, así como la acreditación de cumplir la legislación vigente en materia laboral, fiscal y mercantil.

b) El Servicio de Igualdad de Oportunidades de la Delegación Territorial emitirá informe sobre la procedencia o no de la autorización y de los términos de la misma, remitiéndolo, junto con el resto de la documentación señalada en el apartado a), a la Dirección de Recursos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

c) El Director de Recursos resolverá la autorización o denegación de la solicitud, pudiendo darse dos casos de resolución positiva:

1.– Autorización provisional: en el caso de que los comedores precisen obras de adecuación y se pueda garantizar el funcionamiento del servicio de comedor.

2.– Autorización definitiva.

d) La resolución de autorización contendrá todas las características básicas bajo las cuales se realizará la prestación del servicio de comedor escolar.

*Artículo 25.*– Modificación de la autorización.

Cualquier modificación de los términos de la autorización será solicitada a la Dirección de Recursos a través de la Delegación Territorial correspondiente. La solicitud se realizará en el último trimestre del curso para que pueda ser autorizada antes de iniciarse el curso escolar siguiente. La Dirección de Recursos resolverá sobre la procedencia de modificar dicha autorización.

*Artículo 26.*– Revocación de la autorización.

1.– El incumplimiento de las condiciones y los requisitos establecidos en la presente Orden, o la existencia de déficit económico en el servicio de comedor, podrá derivar en la revocación de la autorización de apertura y funcionamiento del comedor escolar.

2.– Asimismo, cuando el Ó.M.R. del centro no pueda garantizar las condiciones necesarias para un correcto funcionamiento y organización del comedor escolar, el Director de Recursos resolverá el cese del servicio de comedor.

3.– La Dirección de Recursos realizará el seguimiento de los términos de la autorización a través de los órganos competentes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, tal como se contempla en el artículo 23.

SECCIÓN II
CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE COMEDOR

*Artículo 27.*– En los comedores de entes autorizados, el servicio de cocina y comedor será prestado por empresa/s del sector.

*Artículo 28.*– 1.– La contratación del servicio será realizada por el ente autorizado al que se le hayan cedido los locales para uso del comedor.

Baimendutako entitateen jantoki-zerbitzuek sortzen dituzten lan harremanak edo bestelako harremanak ez dute inolako lege-loturarik sortuko administrazioarekiko.

2.– Baimendutako entitatearen erantzukizuna izango da zerbitzua ematen duten enpresek lan, zerga nahiz merkataritza arloko legezko betebehar guztiak betetzen dituztela zaintzea. Erantzukizun horrek ez dio kalterik egingo beste erakunde batzuei dagozkien eskumenei.

*29. artikulua.*– Baimendutako entitate pribatu batek ematen duen sukalde eta eskola-jantokiko zerbitzuko ratioak ezingo dira izan kudeaketa zuzenekoentza ezarritakoak baino txikiagoak.

III. ATALA
JANTOKI ZERBITZUAREN ERABILERA

*30. artikulua.*– Baimendutako entitateen jantokietan ere berezko eskubidea duten erabiltzaileen lehentasun-ordena jarraitu beharko da, Agindu honetako 13. artikuluan kudeaketa zuzeneko jantokientzako ezartzen denari jarraiki.

IV. ATALA
FUNTZIONAMENDU ERREGIMENA

*31. artikulua.*– Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren zereginak dira honako hauek:

1.– Jantokiaren barne-funtzionamenduko irizpideak onartzea.

2.– Jantokiaren funtzionamendua gainbegiratzea.

3.– Berezko eskubidea duten erabiltzaileak hartzeko Agindu honetako 13. artikuluan ezarritako irizpideak betetzen direla gainbegiratzea.

4.– Jantokiaren kudeaketa ekonomikoa gainbegiratzea.

*32. artikulua.*– Ikastetxeko zuzendaria arduratuko da jantoki erabilerarako lokalen lagapen-akordioan ezarritako irizpideak betetzen direla zaintzeaz.

V. ATALA
SEGURTASUNA ETA HIGIENEA

*33. artikulua.*– Baimendutako entitateen jantokiei ere Agindu honetako 21. artikuluan jasotakoa ezarriko zaie, jantoki-zerbitzuko segurtasunaren eta higienearen gainean.

VI. ATALA
KONTROLA

*34. artikulua.*– 1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskola-jantokien funtzionamendu admi-

Las relaciones laborales o de cualquier otro tipo que genere el servicio de comedor de entes autorizados no producirán ninguna vinculación jurídica con la Administración.

2.– El ente autorizado velará para que las empresas que presten el servicio cumplan con todos los requisitos legalmente exigibles en materia laboral, fiscal y mercantil. Dicha responsabilidad será ejercida sin perjuicio de las competencias que correspondan a otros órganos.

*Artículo 29.*– Las ratios de comedor y cocina de aquellos centros cuyo servicio de comedor escolar esté prestado por ente autorizado, en ningún caso podrán ser inferiores a las establecidas para los comedores de gestión directa.

SECCIÓN III
UTILIZACIÓN DEL SERVICIO DE COMEDOR

*Artículo 30.*– En los comedores de entes autorizados siempre se deberá respetar el orden de preferencia de los usuarios de propio derecho, establecido para los comedores de gestión directa en el artículo 13 de esta Orden.

SECCIÓN IV
RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO

*Artículo 31.*– Corresponde al Órgano de Máxima Representación del centro:

1.– Aprobar los criterios de funcionamiento interno del comedor.

2.– Supervisar el funcionamiento del comedor.

3.– Supervisar el cumplimiento de los criterios de admisión de usuarios de propio derecho establecidos en el artículo 13 de esta Orden.

4.– Supervisar la gestión económica del comedor.

*Artículo 32.*– El Director del centro velará por el cumplimiento de los criterios establecidos en el acuerdo de cesión de los locales para uso del comedor escolar.

SECCIÓN V
SEGURIDAD E HIGIENE

*Artículo 33.*– A los comedores de entes autorizados les será de aplicación lo establecido en el artículo 21 de esta Orden referente a la Seguridad e Higiene en el servicio de comedor.

SECCIÓN VI
CONTROL

*Artículo 34.*– 1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación supervisará el funciona-

nistratiboa eta ekonomikoa gainbegiratuko du, eta horretarako arlo bakoitzean eskumena duen organoaz baliatuko da, Agindu honetako 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Horiez gain, Zerbitzuen Ikuskaritza Orokorra ere bere zereginez arduratuko da, jantokiko zerbitzuaren eta kontuen auditoria barne.

2.– Jantokien baimenei, aldaketei eta baimenen baliogabetzeei buruzko jarduerak Sailak berak egingo ditu, Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko Aukera Berdintasuneko Zerbitzuaren bitartez.

3.– Aurrekontuak eta Ekonomi Kontroleko Zerbitzuak eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzuak ezarriko dituzte jantokien kudeaketa administratibo eta ekonomikorako beharrezkoak diren jarraibide guztiak. Aurrekontu eta Hezkuntza Administrazioko Lurralde Burutzak horretarako behar den informazio guztia jasoko du jantokietatik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.*– Administrazioak behar diren ekintzak sustatuko ditu kudeaketa zuzeneko jantokietan, jantokiko funtzioak betetzen dituzten langileak ikastetxeak eskaintzen dituen hizkuntza-ereduetara egoki daitezen.

*Bigarrena.*– Agindu honetan ezartzen denak ez dio kalterik egingo ikasleentzako laguntzen erregimen orokorrari; izan ere laguntzen erregimen orokorrak badu berari buruzko araudi propioa.

*Hirugarrena.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ahal dela, interesatuekin hitzartuko du plantilaren berregokitzapena, eta horrela sukaldeko eta jantokiko langileria zuzeneko kudeaketara bideratu, eta, bereziki, lehentasunezko arretara.

*Laugarrena.*– Kudeaketa Zuzena da jantoki-zerbitzua emateko aurreikusi den behin betiko formula. Beraz, inork ezingo dio uko egin.

*Bosgarrena.*– Agindu honetan jasotakoa, Agindu honi atxikita dauden langileentzako ezargarriak diren akordio eta hitzarmenetan jasotakoaren menpe egongo da beti.

*Seigarrena.*– Agindu honetan arau gabe geratu direnentzako, Herri Administrazoen Araubide Juridikoaren Prozedura Erkidearen Legean jasotakoa ezarriko da.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

*Bakarra.*– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1997ko ekainaren 10eko Aginduan ezarritakoari jarraituz, kudeaketa ez-zuzeneko jantokiak dituztenei ezarriko zaie Agindu honek entitate baimenduek kudeatzen dituzten jantokientzako ezarri duen erregimen bera.

miento administrativo y económico de los comedores escolares a través de los órganos competentes en cada materia, tal como se regula en el artículo 23 de esta Orden. Además de ello, la Inspección General de Servicios llevará a cabo sus propias funciones, incluidas la auditoría del servicio y cuentas del comedor.

2.– Las actuaciones respecto a las autorizaciones, modificaciones y revocaciones las realizará el propio Departamento a través del Servicio de Igualdad de Oportunidades de cada Delegación Territorial.

3.– Los Servicios de Presupuestos y Control Económico, e Igualdad de Oportunidades dictarán cuantas instrucciones consideren necesarias para el cumplimiento de lo establecido en la presente Orden. La Jefatura territorial de Presupuestos y Administración Educativa recabará de los centros cuanta información sea precisa para ello.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*– La Administración promoverá las acciones oportunas a fin de que el personal que realice funciones de comedor en los comedores de gestión directa se adecue a los modelos lingüísticos ofertados por los centros.

*Segunda.*– Lo establecido en la presente Orden se entenderá sin perjuicio del régimen general de ayudas que asista a los alumnos, que se encuentra regulado por su normativa específica.

*Tercera.*– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación procederá, preferentemente de modo pactado con los interesados, a reajustar su plantilla de tal manera que su personal propio de cocina y comedores se destine a la gestión directa y preferentemente, los de atención prioritaria.

*Cuarta.*– La Gestión Directa es la fórmula definitiva prevista para la prestación del servicio de comedor. Por tanto, no se podrá renunciar a ella.

*Quinta.*– Los contenidos de esta Orden estarán, en cualquier caso, sujetos a lo establecido en los acuerdos y convenios de aplicación al personal afectado por la misma.

*Sexta.*– En lo no regulado por la presente orden, será de aplicación supletoria lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

*Única.*– Todos los comedores que de conformidad con lo establecido en la Orden de 10 de junio del 97 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se encuentren en gestión indirecta les será de aplicación el régimen establecido en la presente Orden para los comedores gestionados por ente autorizado.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da 1997ko ekainaren 10eko Agindua, bai eta Agindu honen maila bereko edo beheragoko mailako xedapen guztiak, baldin eta hemen jasotakoaren kontrakorik badiote. Edozelan ere, ez da izango horrek 1999/2000 ikasturtean izan ditzakeen ondorioen kalterako.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Agindu honetan jasotakoa bete dadin, behar diren xedapenak emateko eskumena izango du Administrazio eta Zerbitzu sailburuordeak.

*Bigarrena.–* Agindu honetan jasotakoa 2000/2001 ikasturtetik aurrera jarriko da indarrean, xede horrekin egiten diren deialdien bitartez.

*Hirugarrena.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dei egingo die, Agindu baten bidez, jantoki-zerbitzua kudeaketa zuzeneko erregimenean ez duten ikastetxeei kudeaketa eredu hau eskatzeko aukera emateko.

*Laugarrena.–* Agindu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko martxoaren 22a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 10 de junio de 1997, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden, sin perjuicio de que produzca efectos durante el curso escolar 1999/2000.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Viceconsejero de Administración y Servicios a dictar las disposiciones oportunas para la ejecución de lo establecido en la presente Orden.

*Segunda.–* Lo establecido en esta Orden será de aplicación a partir del curso escolar 2000/2001.

*Tercera.–* El Departamento de Educación, Universidades e Investigación mediante Orden convocará a los centros docentes públicos, cuyo servicio de comedor no se encuentre en gestión directa para que puedan optar por este modelo de gestión.

*Cuarta.–* La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 2000.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-1421

AGINDUA, 2000ko martxoaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Bigarren Mailako Irakaskuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Hizkuntza-Eskola ofizialetako irakasleen kidegoetako funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketarako deia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 23. artikuluan xedatutakoa betez, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako ikastetxeetan lanpostu hutsak daudenez, honako hau

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-1421

ORDEN de 21 de marzo de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca concurso de traslados entre funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco y ante la existencia de plazas vacantes en los centros dependientes de este Departamento de Educación, Universidades e Investigación,